

2011-2016 DENBORA TARTEAN

ARRASATEKO ESKOLA AGENDA

LANTZEKO

INFORMAZIO OSAGARRIA

1.- BERBAK

*URDINEZ DAUDENAK LANDU.

ARRASATEKO BERBAK .ESANAHIAK (2011-2012)

BERBA	AZALPENA
Oreixe	Ekaitza
Txirkorie	Elur oso xehea eta gogorra.
Ostarkue	Ortzadarra
Amillena	Neguko haizea, hego ukitua duena baina hotza. Esaera: "Amillena erropa zarren billa dabillena"
Takien potien	Sarri, sarritan, maiz
Ixotu	Piztu
Moltzue	Sukaldeko tokiak garbitzeko trapua (baieta)
Itxungi	Itzali, amatatu, emendatu
larue	Horia (kolorea)
Arekie	Zanga, erreten, "Errepidearen ondoko areka oso sakona zen"
Askie	Ganadu-aska (ganadua jateko tokia) eta ganadua ura edateko tokia
Afitxa(afixie)	Habia, kabia. Kaiola?
zuzterra	Sustrai, erroa
minorra	Min oso zorrotza baina konstantea
erasana	Esfortzua egiterakoan egindako gihar etena. Zain tiratua, bihurritu.
Korrasak	Zurrungak
Mostrongo	Pertsona handia, potoloa
Txitxarra(txitxarrie)	Hirugiharra (frijitua edo ez)
Kontrako eztarrix	Trakea, janari edo edari bat okerreko bidetik doanean.
Txitxinpe	Teilatu hegalaren azpia

*12 berba(urdiñez) lantzeko.

ARRASATEKO BERBAK(2012/2013)

BERBA	AZALPENA
Txarie	Berez sortutako pago, haritz, arte..basoa.Jaral
Biagoa (bixaue)	Siestie. Bazkal osteko loaldia.
ospela	1.-Hotzaren eraginez, lehen eskuetan sortzen ziren. Sabañon.2.- “Paraje ospela:”Eguzkitik eta hotzatik babespean”.
loerrie	1.-Haurrek loguraren loguraz lorik hartu ezin dutenean loerrie dutela esan ohi da. 2.-Ohetik jaiki ondoren izan ohi den umore txarra
katamixarra	Urtxintxa. Kolore nabarrekoari, bereziki, gorrixkari katagorrixa deitzen zaio.
Ogia eta gaztaia Hobeto (Ogigaztaie)	Erbinudea. Ogigazta.Comadreja
auspokeixie	Ahozabalzeria, harrokeria”. “Arrasateko euskara liburutik hartutako adibidea: “Udalako erregie” Azelakotxe auspokeixie! Esango dau norbaittek titulue leiruaz bat, baina....ez ba!, ezta auspokeixie, egi berdaderue baino.
matraila	masaila
leiru	Leidu. Irakurri,
Tripa truke	1.-Mantenuaren eta ostatuaren truke lanean.2.- Musutruk 3.- Debalde.4.- Doakoa
apopillo	Apopillo egon. Apopilluak hartu.Norberaren etxean ez den batean dagoena, prezio bat ordainduz. Huesped.
akabera	Bukaera.Amaiera
eskorta	Abereak-ardiak-normalean gordetzeko itxitura.Redil.
atzamarka	“Atzamarka ein dust mosuan”. Arañar.
zirina	Hegazti-kaka
zarba	Zerba.Azelga. Acelga
Pittarra	1.- Udazkanean, sagarra xehetu, barrikara bota, ura gaineratu eta horrela lortzen den sagardo goxoa.Zenbait etxetan fermentatu aurretik edaten den sagardo gozoari ere

	esaten zaio.2.(Pitxarra). Jarra.
Aittejaune/amandrie	Aspaldiko partez aitt(a)itta eta amama sartu dira, aittajauna eta amandriaren orde, familia askotan baina jatorrizko denominazioak aittejaune eta amandrie dira.(Aittejauna-amandrie) Abuelo-a
Elurbustixe (edurbustixe)	Elur (Adur) ura. Aguanieve.
segapotue	1.-Sega zorrozteko erabiltzen den segarria gordetzen den potea.2.-Euskal Herriko hainbat tokitan :telefono mugikorra

***11 berba lantzeko.**

(2013-2014)

BERBA	AZALPENA
Txadie ; zuzenketa: txaidie da	Horrek dauka txaidie.1.- ganora.2.-liraintasuna
Izotzbaltza	Zerua estalita dagoelarik egiten duen izotza.
paparra	1.-. Birikaren goialdea, Pecho gaztelera. 2.- Bularkia (oilasko paparrak)
Ezkailue	Errekatxoetan egoten den arraintxo.Gaztelera: bermejuela.
Aitapuntekue	Aitabitxia. Padrino gaztelera. Zentzu kolokialean babesle edo “protector”-gaztelaniaz.
Amapuntekue	Amabitxia. Madrina gaztelera. Zentzu kolokialean babeslea.
Majo	Ondo. Ederto.
Hainbestien	Zeharo gaizki ez. “Pasablemente”.
Txerrena	Deabrua
Txantxarra	1.-Hortz eta hagnetako “zulotxoak” – kariesa.2.- Hegaztien gandorra.
Eskubizerrak	Hazbizarrak.Azkazalen ondoko azaltxoak.”Padastros” gaztelera.
Mejorau	1.- Gaixorik ibilitakoan, osasuna hobetzea.2.- Pertsona gizendu
Gobernau	1.- Ganaduei beren lanak egin:jaten eman, jaitsi, etab.2.- Zabaldundez, pertsoneri ere bai.”
Amarratza	Armiarma.
Mokille	Erpila. Terrón, gaztelera.
Katilue	Kirtenik gabeko tazoia, kikara.”Esne-katilue”.
Printzau	Arrailatu.

***9 berba lantzeko.**

(2014-2015)

BERBA	AZALPENA
Bentajie	Haztea, alturaz. Gizendu ere bai.
etxaflerue	Suziria. Jaietan edo hainbat ospakizutan botatzen diren “etxafuegosak”
ondion	oraindik
zakarra	1.- izaera: Gogorra, bruskoa 2.- gaiak.- zaborrak
ezpatie	tabanoa
elgorrixe	Saranpiona (gaixotasuna)
ondoeza	Zorabioa.Osasun edo aldarte txarra
mirrina	“Aurpegi mirriña daukazu”. Argala, Esmirriada
txirtxila	Grillo, gaztelaniaz.
baie	Bahea. Irina eragiltzeko tresna
fan	Joan.
dontsu	Gauza bateaz asko hitz egiten denean, molesto apur bat egonik, erabiltzen den hitza. Gaztelaniaz.”dichoso”. “Pertsona dontsu hori...”
urrin	Urruti
lakarra	Eztarriko lakarra.
mutikotan	Mutikoa: “Hamahiru bat urte arteko mutila. Bizitzako sasoi horretan
Gaztetan	Gaztaroen.
Kristonak	Sekulakoak
Etorrixe	1.-Hitzjario ugari eta egokia, hizlari eta bertsolariez batez ere.2.- karta okoan ere karta onak hartzea.
Fan etorrixek	Joan etorriak
Makina bat	Asko. “Makina bat lan “

* 12 berba lantzeko.

(2015-2016)

BERBA	AZALPENA
Untza	Iltzea.
zurdie	Antzigarra.Izotzaldi fuertea non zuhaitzak arbolak eta landareak agertzen diren orratz moduko antzigarrarekin (ihintzarekin)
txorroki	1.-Arte txikia(zuhaitza).2-Artearen hostoa neguan animalie emateko.
Tril eiñ	Topo egin. Norbaitekin pasadizoan aurrez aurre aurkitu.

gerribuelta	Gerrialde lodia.
takarraran	Korrikan, Arrapaladan, antxintxiketan
txorbela	Hosto lehor jausia lurrean
jareñ	Askatzea, libre utzi , libratzea.
Oz(s)pela	1.-Azkordina. Sabañón gaztelaniaz. Neguan hotzak eskuetan, belarrietan... eragindako zauritxoak2.- Eguzkitik eta hotzatik gordetako tokia.
doministikue	Gaztelaniaz estornudo. Usina.
orkatza	Gaztelaniaz corzo. Egun, gure mendi eta basoetan ugaritu egin da animalia.
beinke	Jakina baietz. Izan ere, ene bada. “Si pues , ya lo creo”. “Bien que” etim.”Beinke...zer ikusi a ikasi”
ortue	baratza
bielekue	“Zailtasunak”.Betebeharrekoak.Gorabeherak.
Mantzardo/mantzarda	Ganorik gabeko gizona. Ganorik gabeko andrea
gatxizena	Gaitzizena.
errementerixe	Errementaria, forjaria. Bailarako hainbat herritan harotza ere esaten da
litxarkerixie	Gutiziazko jakiez esan ohi da: gozokiak, golosinak-Batik bat desorduan edo ezkutuan jaten badira.
zabarra	Narrasa, abandonatua, gutxi erabilia.
Laino erratua	Laino sueltoak, euria botatzeko tankerakoak izaten direnak

***10 berba lantzeko**

2.-ARRASATEKO ESAMOLDEAK (AED).

*URDINEZ DAUDENAK LANDU.

*ESAMOLDEEN ESANAHIA ETA ERABILERAREN ADIBIDEAK (2011)

1.-SESIÑOAN/DROGETAN IBILLI: demandan egin, liskarretan ibili. “Amak esaten dust drogetan nabilela beti, jaleo danen epizentruan”

2.-GOZUA EGON/JARRI: guztiz haserre egon/jarri. “Gozuak jarriko die nire gurasuak honeik notok ikusten dittuenien”

3.-TRIPA ZORRIXAK EDUKI: goseak egon eta horrela egonda tripek ateratzen duten zarata. “Ordu honetarako tripa zorrixak hasten jatie generalien, baiña gaur ez nau gosiak”

4.-TXAHALA BOTA: botaka egin. “Automobillien zorabiatu nitzen eta txahalia bota biher izan neuen ailegatu orduko”

5.-AZAK EMUN: norbaitek beste bati zerbait ukatu, kale eman. Amodio eta sexu kontuetan erabili ohi da nagusiki. “Afalketan gonbidatu dot eta azak emun dust atzo ezagutu nauen neskiak”

6.-ERRETOLIKIA EDUKI: Hizketa luze, nahasi edota errepikakorra eduki. “Deabrua be nahastuko leuke horrekin erretolikiarekin”

7.-TXIZA ARRASTARIA BOTA: txiza majo egin. “Litro bete ur edan eta gero ez da harritzekua demaseko txiza arrastaria botatzia”

8.-ZARTADIA EDUKI: zoro haizea eduki, brintzatuta egon. “Udalatxera gabez igo zarela?? Zuk dauketzu zartadia zuk”

9.-GORRAIXIA EDUKI: ez entzunarena egin; norbaitek esaten zaiona entzun nahi ez duenean hartzen duen jarrera. “Gure amak gorraixia eukitten dau aittak kotxez aldaketako gogua daukela esaten dauen bakoitzien”

10.-LAU ORRIXEN IKERAN EGON: guztiz ikaratuta egon. “Bankuko langilliak lau orrixen ikeran jarri zien lapurra sartu zaniien”

2012-2013

1.-**GORRI EGON**: dirurik ez izan. *Oporrak etxian pasau biherko dittuagu aurten, sekula baiño gorrixago gaz eta.*

2.-**TALAIIXAN EGON**: erne egon, adi egon. *Talaixan egoten ez bazara azeri horrek agudo asko lapurtuko dutsu bikote laguna.*

3.-**ZAPUA EUKI**: begittan hartuta. *Arbolatik behera jausi nitzenian barre batian hasi zan eta, harrezkero, sekulako zapua dutset zure lagun horri.*

4.-**ELORRIXO IKUSI**: egoera larriak edo arriskutsuak igaro, gorriak ikusi. *Eurixa hasi jakun Anboto puntan ginguzela eta Elorrixo ikusi geuen jaisterakuan.*

5.-**HARTZEKUAKIN ETORRI**: arrazoi gabe arrazoia izango balu bezala azaldu eta kontuak eskatu. *Ez etorri niri hartzekuakin hozkaillua hutsik dauelako, gaurko erosketak egittia zure arduria zan eta.*

6.-**AMAMA EUKI**: zortea izan edo gauzaren bat egiteko samur eduki. *Horrek dauko amamia, horrek. Apustu bakarra egin eta ez dau ba porra osua eruen!*

7.- **PLE EGIN**: ok egin, jatekoarekin edo edatekoarekin bete. *Ez dot postrerik gura, ple egindda geratu naz baba janarekin.*

8.-**ENTRAMIA EDUKI**: jateko gogo handia eduki. *Zuk danketzu entramia! Oin dala ordubete bazkaldu dogu eta bazabitx barrero gailleta kajia hustu biharrian.*

9.-**BARRE USTELA**: *Aldebikua izan bihar da gero patroia, lau langille kaleratu eta oraindio barre ustel horrekin agerketako fabrikara.*

10.-**AFAN USAIÑA**: harrokeria. *Diru apur bat egin auen Ameriketan eta Cristiano Ronaldok baiño afan*

2013-2014

1.-**ALDEBIKUA IZAN**: borondate onaren edo gogo onaren itxurakeriak egiten dituen alderantziz izanda. *Argi ibilli horrekin, aldebiakua da-eta. Zer komeni jakon, alde batera egingo dau batzuetan eta bestietan, bestera.*

2.-**JAREIÑA IZAN**: norberaren itxurari edo eginbeharrei erraz uztea. *Hain jareña izetia be! Begiratu ze ule griña eta arropa jira daroien!*

3.-**BELARREZKIÑAKUA EMUN**: belarrondokoa, matrailekoa eman. *Belarrezkiñako edarra emun eusten amak mingaiña atara neutzonien*

4.-PIKULITTARA BIALDU: gauza edo pertsona bat zakar arbuiatu. *Adarra joten etorri jat Mikel eta aguro baildu dot pikulittara, ez ninguen txantxetarako.*

5.-KIKILI USAIÑA EUKI: izerdi usaina eduki, aker usaina eduki. *Bi ordu futbolien egitten egon eta gero dutxa ederra hartu biberko dogu kikili usaiña kentzeko.*

6.-PAPELJALIA IZAN: gauzak bere onerako laudatzea. *Egunen baten irakasliaren frakei pegauta geratuko baz, papeljalioi!*

7.-BABA KANPAIAK JO: Bazkaltzeko ordua heldu. *Eskerrak baba kanpaiak jo dauen ze tripa zorrixak martxan dauket aspalditik.*

8.-ZURIXA IZAN: pertsona nagia, alferra izan. *Hori dok/n zurixa izan! Laneko erreminttia ikusi orduko gaixotu egitten dok/n*

9.-ERNEGAU EREIN: lasai dagoena urduri edo haserre jarri. *Ume! Egon hadi geldi lasai dazanak ernegau erein barik.*

10.-KULAPE EMUN: azak eman, kale eman. *Atsaldien elkarrekin urtetia proposatu dutzet Andoniri, baiña kulape emun dust.*

2014-2015

1.-SOPA SALDIA EMON: berotua eman, gain egurra eman, egurtu, astindu.

2.-SOMAN EGON: talaian egon, adi egon.

3.-KANPOLARROSIA IZAN: itxurakeriatan ibili, itxura hutsa izan

4.-ZEREKO ZEREAN DAGOEN ZERA EKATZU.- Hitza gogoratu ez eta burura (ahora) etortzen ez denean, betegarri hauek erabiltzen dira, zer hitzaren deklinazioaren bidez (zereko, zerean, ..)eta baita aditz formen bidez ere (zertzen, zertzera...)

- 2015-2016)

1.-AHOZATARRA IZAN: Zakar berba egiten duena

2.-JAN TXAKURRA IZAN: Inoiz ordaintzen ez duena

3.-HAIZETSUA IZAN: Tenperamentuz edo aldartez erraz aldatu

4.-DEMANDAN EGIN, SESIÑUAN IBILLI: Eztabaidatu

5.-KOPAUUA EGIN: Zerbait jan

6.-NESKATAN EGIN; MUTILLETAN EGIN: Ligatu

7.-ADAR SOIÑUA EDUKI, ADAR SOIÑUAN IBILLI: Adarra jo

8.-BRINTZAUTA EGON: Zorokeriak eta kaskajokeriak egiteko joera izan

9.-GOR HAIXIA EDUKI: Gor pasakorra eduki zerbait entzutea ez denean komeni

10.-KASKETALDIXA EMON: Buruan sartutako kapritxo edo bitxikeria bat egiteko bidean jarri

11.-KEIANA EGIN, HANKA JOTIA ETARA: Ospa egin, alde egin

3.-EUSKARAREN TRANSMISIOARI BURUZKO ESALDIAK (TXATXILIPURDI)

*IRAKASLEEK IRAKURTZEKO.

2013-2014

- “Hizkuntza bat ez jakitea eta ez erabiltzea gauza bera da” (**Hiromi Yoshida**)
- “Ikaskuntza linguistiko naturala erabileratik hasi eta motibaziorako ibilbidean datza” (**Txepetx**)
- “Familia/Euskara bikoteari harremana gastatu zaie eta familiak ez du garai batean zuen euskararekiko lilurarik” (**Iñaki Martinez de Luna**)
- “Integrazio linguistikoa ahalegin pertsonalei esker eman da” (**Jon Maia**)
- ... euskararen transmisioan funtsezko garrantzia aitortzen diote familiari hainbat hizkuntzalari eta soziolinguistika adituk...
- “Nolakoa lehen hizkuntza, halako hiztuna” (**Iñaki Martinez de Luna**)
- “Zenbat eta osatuagoa euskararen sozializazioa, hainbat eta handiagoa erabilera” (**Iñaki Martinez de Luna**)
- “Gurasoen eskuetan dago haurren euskara ikasteko prozesua indartzeko eta errazteko” (**Paula Kasares**)
- “Guraso batzuek ezingo dute euskara Transmititu baina bai honi lotutako balioak, jarrerak eta balioespenak” (**Paula Kasares**)
- “Euskaraz ez dakitenak ere hizkuntza transmititu dute” (**Kike Amonarriz**)
- “Hizkuntza-gaitasun maila jakin batera heltzeko hizkuntza hori erabiltzea ezinbestekoa da” (**Arrue proiektua**)
- “Eskolak soilik ez du haurra/gaztea euskalduntzen”
- “Ikasleen arteko eskolako hizkuntza erabilerek lotura nabarmena dute ikasleek eskolatik kanpo –familia zein bestelako jendarte alorretan- bizi duten errealitate linguistikoarekin” (**Arrue proiektua**)

- “Jendarte/familia binomioaren baitan, haur eta gazteen jarduera antolatuetan euskararentzako baldintza aldekoagoak sortu eta hedatu behar dira” (**Arrue proiektua**)
- “Euskara galduko bada, ez da etorkinen erruz izango; baina euskarak iraungo badu, ez da soilik bertakoen hizkuntza izango, bertakoena eta kanpotik etorritakoena baizik” (**Amelia Barquin**)
- “Euskaratik eta euskaraz ematen diogu kolorea munduari” (**Iñigo Mantzizidor “Mantxi”**)
- “Sortu berria den umeari, biziko bada, hainbat gauza eman behar zaio: maitasuna, arreta, elikadura, jantzia... bai eta hizkuntza ere”. (**Helena Baraibar, Kristina Boan**).
- “Kulturaren museo ondare ikuspegi batetik, gaelikoa, gaur egun dagoen egoeran, beste ehun urtez ere iraunarazi dezakete Irlandan. Hori opa diogu gure buruari?” (**Julen Arexolaleiba**)
- “Ama-hizkuntza ez da jaiotzez jasotzen duguna esan zuen; Ama-hizkuntza pentsatzeko eta bizitzeko aukeratzen duguna da”. (**Amets Arzallus**)
- “Transmititzea maitaraztea da, jakintea eginaz” (**Hélène Cixoux**)

2014-2015

1. . “Hitzak ez du antzik xaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili xaboia, orduan eta urrituago eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago. Euskara aurrera aterako al den galdetzen didazu. Erabiliz gero aterako da; bestela, ez”. **Bernardo Atxaga**
- 2.-- «Mendeetan zehar euskarak izan duen erreprodukzio-mekanismorik onena, leialena, familia bidezko jarraipena izan da» **Iñaki Arruti**
- 3.- “Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria” **Koldo Mitxelena**
- 4.-. “Eraginkorrak izan nahi badugu, haurren euskalduntzearekin batera helduena ere indartu beharko da. Eta ikaste prozesua erabilera ohituren aldaketarekin lotu”. **Joan Mari Larrarte**
- 5.- Euskara eta elkarbizitza lotuta daude. Ze elkarbizitzaren korapiloan euskara ere badago, bai, baina euskara ere konponbidearen giltzetako bat da. Biak batera. **Lorea Agirre**

6.-: “Euskaldunok, besteetan gehiegi pentsatu gabe, geuk eta geurez zer egiteko garen horren arabera erakarriko ditugu edo uxatuko ditugu etorkinak **Julen Arexolaleiba**.”

7.- “Herri txikiak ez gara munduaren parte txiki bat soilik; aitzitik, txikiak izan arren, unibertsaltasunaren duintasuna dugu”. **Albert Bastardas**

8.- “Dibertsitatea onartzean eta barneratzean munduaren irudi osotuagoa onartzen ari da eta, era berean, dibertsitate hori bultzatzen duen “beste horrek” gureaz kontzienteagoa izaten laguntzen du.” **Jone Miren Hernandez**

9.-Nahiz eta hizkuntzaren jabe ez izan, maila batean edo bestean familia guztiak transmititu dezakete, hizkuntza ezagutaraziz eta maitaraziz, egun batean haur horrek euskara bere egin dezan. **Paula Kasares**

10.-Zailtasunak dituen edozein komunitatek biktimismorako joera duela uste dut, eta biktimismoa oso kaltegarria da aurrera egiteko". **Kike Amonarriz**

11.-Haurra eskolara (D ereduko gelara) bidali eta, horrenbestez, euskalduntze-bide sendoan sartua dagoela uste izatea gehiegizko ustea da.**Mikel Zalbide**

12.-Nire iritzirako, erdarakada, komunikazio tresna den heinean eta efektiboagoa baldin bada beste esamolde bat baino, zergatik ez erabili? **Maialen Lujanbio**

13.- Kezka hori detektatu dugu eta une honetan, euskara ez dago kinka larrian etorkinengatik.**Amelia Barquin**

14.- Gaitasun komunikatiboa ez da hizkuntzek duten propietatea, hiztunek dutena baizik**Juan Carlos Moreno Cabrera**

15.- Euskara ahoan, ez hangoan.

Angel Lertxundi.

16.- Euskararen etorkizuna lortzen duen gizarte bizitzan dago, teknologia berrietan aukera gutxi izango baitu.**Jon Sarasua.**

17.- Hizkuntza alternantzia baliatu behar genuke.**Esti Amorrortu.**

18.- Euskararen normalizazio legeak deserosoak izan behar dira, jakina.

Lorea Agirre.

19.- Lege babesak behar du euskarak, marketina baino lehenago.

Gari Berasaluze.

20.- Euskaldun segitzeko gogoia transmititu behar diegu gure gazteei, eta euskaldun bizitzeko poza.

Jabier Zabaleta.

2015-2016. Haurtzaroa. Jolasa. Euskara.

1.-“Ez dago haurtzaro “natural” edo unibertsal bat, ez eta haur “natural” edo unibertsal bat ere. Haurrak daude, eta haurtzaro mota asko dago.”

2.-“Haurtzaro ona haurra bere gaiasun guztiekin onartzen duena litzateke, eta gaitasun horiek garatzera bultzatzen duena.”

3.-Haurrak gaitasunak ditu, erabakitzeko gaitasuna du, ekimena du, harreman afektiboak gauzatzeko gai da, ezagutza eraikitzen du, eta nortasuna eta kultura ere garatzen ditu.”

4.- “Haurra ikasteko gaitasunarekin jaiotzen da, ez dauka galdetu beharrik ez eta heldu baten baimen beharrik ere ikasten hasteko.”

5.-“Baina umeak nola daki dakiena? Horra hor hurrengo galdera funtsezkoa. Eta erantzun argigarri eta zentzuzkoa: jolasaren bidez.”

6.-“Jolas librea eta bat-batekoa helduen ikerketa zientifikoaren, arte sorkuntzaren edo mistikaren pareko da.”

7.-“Jolastea denboran galtzea da, eta munduarekin topatzea.”

8.-Ahulenaren neurrira egindako gizarte izango delako benetako gizarte inklusibo, justu eta bizigarria.”

9.-“Denok aukera-berdintasuna izanda eta berdintasun mailatik abiatuta baino ezin da aniztasuna bermatu eta azaleratu.”

10.-“Euskara, berez, balio bat da bere baitan, balio hezitzaile bat, inklusiboa eta irekia delako.”

11.“Haurrek badute mundua ikusteko, bizitzeko modu propioa.”

12.-“Jolasa askatasunez arriskatzeko plazera da.” *Fraçoise Dolto*

13.-“Arazoa hobekuntzarako aukera da. Arazoa ikasteko bidea da.”

- 14.-“Haurrentzat proposatzen den horrek hiritar guztientzat balio du.”
- 15.-“Aurre egin behar diegu beldur horiei, sormen prozesuei mugarik ez jartzeko”
- 16.-“Jolasa behar biologikoa da.”
- 17.-“Garrantzitsuena da umeen ideiak gure ideiekin ez ezabatzea.”
- 18.-“Nork ez du jolas egin maila edo koskatxo batean igota, “menditik behera erortzeko arrisku bizian” zegoela irudikatuz?” *Clara Eslava*
- 19.-“Jolas herrikoiak jolas kolektiboak dira maiz, eta aldaera asko izaten dituzte.”
- 20.-“Jolas librea errutinaren aurkakoa da.” *Clara Eslava*
- 21.- Pertsona oro, haurra zein heldu, balioen transmisore da.”**

Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 28an